

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA

JAVIER MORENO. Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusia.

2. ARTIKULUAK

Kudeaketa publikoa udaletan: eztabaida gaiak.

SEBASTIAN ZURUTUZA MUJICA

Udal kudeaketaren plangintza, ebaluazioa eta kontrola.

JOSÉ IGNACIO ELZAURDI; JUAN AMEZTOY.

3. ALBISTE LABURRAK

4. ESTATISTIKAK

- ▷ Gipuzkoako ekonomiaren bilakaera.
- ▷ Foru aldundien zergabiltketa likido metatua iazko aldi berekoarekin alderatuta.
- ▷ Foru Aldundien sarrera-aurrekontuak gauzatze-maila.
- ▷ Udal Aurrekontuen likidazioak 1996. Eskubide likidatuak.
- ▷ Udal Aurrekontuen likidazioak 1995. Obligazio onartuak,.
- ▷ Jarduera ekonomikoak 1997ko abenduaren 31ean udalerri, sekzio eta jarduera adarren arabera.
- ▷ Jarduera ekonomikoen alta eta bajeen saldoa 1997an, udalerri, sekzio eta jarduera adarren arabera.
- ▷ Aldundiak 1997an bildutako udal zergak: borondatezko epea

1. PRESENTACION

JAVIER MORENO. Director General de Política Fiscal y Financiera.

2. ARTICULOS

Gestión pública municipal: algunas cuestiones de interés.

SEBASTIAN ZURUTUZA MUJICA

Planificación, evaluación y control de la gestión municipal.

JOSÉ IGNACIO ELZAURDI; JUAN AMEZTOY.

3. NOTICIAS BREVES

4. ESTADÍSTICAS

- ▷ Evolución de la economía en Gipuzkoa
- ▷ Recaudación líquida acumulada de las Diputaciones Forales comparada con igual período del año anterior.
- ▷ Nivel de ejecución de los presupuestos de ingresos de las Diputaciones Forales.
- ▷ Liquidación de Presupuestos de los Ayuntamientos 1996. Derechos liquidados.
- ▷ Liquidación de Presupuestos de los Ayuntamientos 1996. Obligaciones Reconocidas.
- ▷ Actividades económicas vigentes a 31 de diciembre de 1997 por municipios, secciones y divisiones.
- ▷ Saldo de altas y bajas de actividades económicas producidas en 1997 por municipio, secciones y divisiones.
- ▷ Recaudación Tributos Locales 1997 gestionada por Diputación: período voluntario.

- ▷ Aldundiak 1997an bildutako udal zergak: zergabilketa exekutiboa eta alta berriak.
- ▷ Aldundiak 1997an bildutako udal zergak: zergabilketa exekutiboa, alta berriak + borondatezko epea.
- ▷ Aldundiak bildutako udal zergak: zergabilketa exekutiboa, alta berriak + borondatezko epea.. 1997-1996.

- ▷ Udal adierazleak.

5. LEGERIA

6. KONTSULTAK ETA EBAZPENAK

7. SENTENTZIAK

8. BIBLIOGRAFIA

- ▷ *Recaudación Tributos Locales 1997 gestionada por Diputación: ejecutiva y altas nuevas.*
- ▷ *Recaudación Tributos Locales 1997 gestionada por Diputación: ejecutiva, altas nuevas + período voluntario.*
- ▷ *Recaudación Tributos Locales gestionada por Diputación: ejecutiva, altas nuevas + período voluntario. 1997-1996.*
- ▷ *Indicadores municipales.*

5. LEGISLACION

6. CONSULTAS Y RESOLUCIONES

7. SENTENCIAS

8. BIBLIOGRAFIA

Javier Moreno

Zerga eta Finantza Politikako Zuzendari Nagusia
Director General de Política Fiscal y Financiera

GIDAREN zenbaki berri honetan, artikuluen atalean erreferentzia teorikoak eta praktikoak eskeiniko dira kudeaketa publikoaren mundu konplexuari buruz.

Lehen artikuluan, Sebastian Zurutuza, Erakundearteko Konpromisuen eta Udalentzako Laguntzaren Zerbitzuko buruak birpasa laburra egingo du kudeaketa publikoaren literaturan nagusitu diren orientazio garrantzitsuenen eboluzioari buruz. Gainera, aurrekontu politikan aurreratzeko eta zerbitzuak ematean antolamendua eta kalitatea hobetzeko balio duten teknika batzuk aurkeztuko ditu.

Bigarren artikuluan, berriz, Jose Ignacio Elzaundi eta Juan Amezttoy kudeaketako aholkulariek kudeaketaren plangintzari buruzko arazoak aztertuko dituzte ikuspuntu teoriko nahiz praktikotik. Horretarako, Gipuzkoako udalerrietan egindako esperientziak jasoko dituzte udalen kudeaketako planei buruz.

Estatistiken atalean informazio interesgarria eskeini nahi zaie udalei, zenbaitetan argitaratu arren lortzen zaila baita oso sakabanatuta egoten delako. Gainera, argitaratzen ez den informazio interesgarria ere eskeini nahi dugu. Zenbaki honetan estatistika mota honen adibidea jardura sektoreen arabera Gipuzkoako udalerrietan egiten diren jardura enpresarial eta profesionalei buruzko informazioa da. Aurkezpen hau aprobetxatu nahi dut laster GIDAREN aparteko zenbaki batean udal mailako Errenta Zergari buruzko informazioa eskeiniko dugula iragartzeko. Izan ere, gure asmoa da udal kudeaketaren arduradunentzat eta analistentzat erabilgarria izatea.

Azkenik, Gipuzkoako udalen karga finantzarioari eta zorrari buruzko estatistika eskainiko da, 1997ko abenduako aparteko

En este nuevo número de GIDA, en la sección de artículos, se ofrecen referencias teóricas y prácticas relativas al complejo mundo de la gestión pública.

En el primero, Sebastián Zurutuza, Jefe de Servicio de Compromisos Institucionales y Asistencia Municipal, realiza un breve repaso sobre la evolución de las principales orientaciones que han primado en la literatura sobre gestión pública, y además, plantea algunas técnicas que son válidas para introducir avances en la política presupuestaria y mejoras organizativas y de calidad en la prestación de los servicios.

En el segundo de los artículos, José Ignacio Elzaundi y Juan Amezttoy asesores en gestión, abordan la problemática de la planificación de la gestión desde un punto de vista teórico y práctico. Para lo cual, recogen diversas experiencias que se han desarrollado en Municipios de Gipuzkoa entorno a la realización de planes de gestión municipales.

Con la sección de estadísticas lo que pretendemos es ofrecer información de interés para los ayuntamientos, que aunque en algunos casos se publica no es de fácil acceso por su dispersión. Además, tratamos de incorporar información que siendo igualmente de interés no se publica. En este número, un ejemplo de este tipo de estadísticas, es la información de las actividades empresariales y profesionales que se realizan en los municipios guipuzcoanos clasificados por sectores de actividad. Aprovecho esta presentación para anunciar que próximamente tenemos la intención de elaborar información del IRPF a nivel municipal en un número extraordinario de GIDA que esperamos que sea de utilidad para los responsables y analistas de la gestión municipal.

Finalmente se introduce una estadística con la carga financiera y deuda de los ayuntamientos guipuzcoanos que se publicó en

Aurkezpena

zenbakian udal adierazleei buruz argitaratu zena. Estatistika berri hauek eguneratu egin ditu 1998ko apirilaren 21ean, orduan argitaratutako datuak.

el número extraordinario de diciembre de 1997 relativo a los indicadores municipales. La nueva estadística actualiza a fecha 21 de abril de 1998 los datos anteriormente publicados.



KUDEAKETA PUBLIKOA UDALETAN: EZTABAIDA GAIAK

SEBASTIAN ZURUTUZA. Erakundearteko Konpromisuetako eta Udalei Laguntza emateko Zerbitzuko burua.

En este artículo se realiza un breve repaso sobre la evolución de las principales orientaciones que han primado en la literatura sobre gestión pública y se plantean algunas técnicas que pueden ser válidas para introducir avances en la política presupuestaria y mejoras organizativas y de calidad en la prestación de los servicios.

Se resumen las características más importantes que se han producido en la evolución de la Administración, que ha pasado, en la jerga de la nueva gestión pública, de ser una Administración garantista a otra gerencialista, mientras que en la actualidad se insiste en la singularidad de lo público frente a posturas que han pretendido una traslación mimética al sector público de experiencias acometidas con éxito en el sector privado.

Asimismo se analizan las posibilidades que la política presupuestaria ofrece para contribuir a una gestión mas eficiente y eficaz, como son, el uso de técnicas presupuestarias avanzadas y las modificaciones en las normativas presupuestarias. En relación con este último punto es de gran importancia para las administraciones locales conocer la potencialidad de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria para hacer más flexible y rigurosa la gestión presupuestaria, acomodándola a las necesidades de cada organización.

Finalmente, se hace mención a dos técnicas de gestión que pueden ser provechosas en el ámbito local como son lo que se denomina la Carta de los Ciudadanos o Carta de Calidad de los Servicios Públicos y el Benchmarking.

1. Sarrera

Berriki Herri Kontuen Euskal Auzitegian lehendakaritza aldatu dela-eta, atera berria den lehendariak, Juan Luis Laskurain jaunak, nahiz lehendakari berriak, Rafael Iturriaga jaunak, biek komunikabideei egindako deklarazioetan azpimarratu dute, legalitatearen kontrolarekin batera, oso garrantzitsua dela Administrazioaren efikazia eta efizientziaren kontrola. Gauzak horrela,

Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren datozen hiru urteetako asmoak honako honetan mamituko dira: Administrazioak bere aurrekontuetan zehaztuko ditu berak lortu nahi dituen helburuak eta horiek lortzeko garatuko dituen ekintzak, horretarako programa bidezko aurrekontuaren teknika erabiliz.

Kezka horiek Kontuen Euskal Auzitegiaren orientazioak izango dira etorkizun hurbilean. Eta hori azken bi

hamarkadetan kudeaketa publikoari buruzko eztabaida teorikoaren gidari izan diren kezka nagusien islada besterik ez da. Auzi horien garrantzia begibistakoa da, kudeaketa efikaza lortu nahi duen edozein antolamendu-diseinutan ageri beharreko alderdi nagusiei buruzkoak diren neurrian: a) kudeatzaileei inizatiba nahikoa ematen dien antolamenduzko egitura egokia izatea, balorazioa emaitzen ebaluazioan oinarrituko den neurrian; eta b) helburu argi eta neurgarriak izatea, aurrekontu eta informazio sistema erabilgarri baten bitartez helburu bidezko kudeaketari begira.

Kontuen Euskal Auzitegiaren eguneroko zereginaren kezka nagusiari buruzko aipamen hau aitzakia ona da lan honekin lortu nahi dudana helburua ulergarriagoa egiteko. Kudeaketa publikoan kanpoko pizgarriak ez izateak edo horiek aurkitzeko zailtasuna egoteak berarekin dakar Administrazioetik kanpoko organoek kontuak fiskalizatzea kudeaketa hobetzeko eragingarri bihurtzea. Hortik dator, hain zuzen, artikulua honen edukia Euskal Autonomia Elkartearen herri administrazioen fiskalizazioari eman behar zaion ikuspegi aldaketa elkarrekin lotzeko interesa.

Beraz, lan honetan bi elementu eskeini nahi dut: batetik, birpasa labur bat kudeaketa publikoari buruzko literaturan nagusitu diren orientazio garrantzitsuenen eboluzioari buruz; eta, bestetik, nire ustez bereziki baliagarriak diren zenbait teknika aurkeztea, aurrekontu politikan aurreratzeko eta herri zerbitzuak ematean antolamendua eta kalitatea hobetzeko.

Auzi horiei aurre egiteko, eta sarrera egin ondoren, bigarren atalean

aztertu dut zeintzuk diren faktoreak kudeaketa publikoaren inguruan ari diren agente desberdinen interesetan zergatik hain aldaketa garrantzitsua gertatu den azaltzen dutenak: politikoak, funtzionarioak, analistak eta, oro har, hiritarrak.

Geroago, hirugarren atalean laburbilduta jaso ditut Administrazioaren bilakaeran izan diren ezaugarri nagusiak. Administrazioa, kudeaketa publikoaren jergan, administrazio garantista izatetik gerentzialista izatera pasatu da; eta gaur egun publikotasunaren berezitasunez mintzatu ohi da, sektore pribatuan arrakasta izan duten esperientziak mimetismo hutsez sektore publikora eraman nahi izan dituztenen jarrean.

Kudeaketa publikoaren esparruan izan diren joera nagusiei buruzko aurkezpen laburra egin ondoren, laugarren apartatuan aurrekontu politikak kudeaketa efiziente eta efikazagoa egiteko eskeintzen dituen aukerak aztertuko dira, hala nola: aurrekontu teknika aurreratuak erabiltzea eta aurrekontu araudiak aldatzea. Azken alderdi honi dagokionean, udal administrazioentzat oso garrantzitsua da Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren potentzialitatea ezagutzea aurrekontuen kudeaketa malguago bihurtzeko, antolakera bakoitzaren beharretara egokitzearren.

Bosgarren atalean oso puntu generikoei helduko zaie antolamenduaren alderdiei buruz. Gainera, oso konkreituak diren bi kudeaketa teknikari buruz arituko gara, udalen esparruan oso probetxugarriak izan daitezkeenak:

Herritarren Agiria edo Herri Zerbitzuen Kalitatearen Agiria; eta *Benchmarking*-a.

Azkenik, eta ondorio gisa, hausnarketa multzoa eskeiniko zaio irakurleari, artikulu honen auzi nagusiak laburbiltzeko asmoz.

2. Kudeaketa publiko berriaren orientabideetan izandako aldaketaren faktoreak.

Gaur egun denak ados daude baliabide publikoen kudeaketa hobetu eta etengabeko hobekuntzaren logika herri administrazioen funtzionamenduan zabalteko beharra dagoela.

Ondorengo gertakari hauek kontuan hartuta sortu da aipatu adostasuna:

- Laurogeiko urteetatik aurrera herri administrazioak baliabideen urritasun eta krisi fiskaleko kontestu orokor batean murgilduta zeuden. Espero denez, egoera hori ez da aldatuko etorkizun hurbilean. Eta horrek garrantzi handiagoa ematen dio kudeaketa efikazagoa eta efizienteagoa lortzeko antolamenduan aldaketak egiteari.

- Baliabide urritasunarekin batera eskariaren aldetik, hau da, herri zerbitzuen erabiltzaileen aldetik presio handiagoa agertzen da (produktu eta zerbitzu gehiago, kalitate handiagoa...). Ikuspegi horretatik, beharrezkoa da udalek herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematen dizkieten erakundeak izan daitezen lortzea, eta horretarako gaur egungo kultura administratiboaren aldaketa sakona eman behar da herritarren eskariari irekitako udala izatera iritsi arte.

- Aurrekoarekin batera, gero eta handiagoa da Administrazioaren lehiakortasunaren beharra merkatuen globalizazioaren eta nazioarteko espazio ekonomiko eta politikoen garapenaren markoan¹. Zentzu horretan, orain dela gutxi pentsamendu korronte berriak sortu dira, teoria ekonomikoaren ikuspegitik sistema instituzionalak epe ertain eta luzeko hazkunde ekonomikoaren erritmoa baldintzatzeko duten garrantzia azpimarratzen dutenak. Horrexegatik, modernizazio instituzionala beharkizun gehigarria da hazkunde ekonomiko orekatua bermatzeko eta, beraz, kudeaketa publiko berriaren orientazio aldaketa azaltzen duen hirugarren faktorea da.

Zenbait autorek garrantzi handia ematen diote ideia honi: “governu modernoaren helburu nagusia ez da herritarrentzat ondasun eta zerbitzuak sortzea, baizik eta *governance* hobea lortzea, hau da, eragile sozial guztien jokabide efiziente eta erantzulea eragiten duten sistema instituzionala eta herritarren kultura.”²

- Azkenik, Administrazioaren eguneroko lana, gainerako agente ekonomikoak bezalaxe, etengabeko aldaketak dituen kontestu batean murgilduta dago (teknologikoak...). Horrek berarekin dakar besteak beste lehen aipatutako hiru faktoreen ondorioz

¹ Kudeaketa publikoaren azterketa desberdinetan osagai instituzionalak ematen zaien garrantziaren adierazle bat *Ekonomiaz* aldizkariaren zenbaki monografikoa da (24 zk.). “La nueva gestión pública: factor de competitividad” izenpean argitaratu da.

² “Reformas económicas y reducción del rol del estado?” Joan Prats. Planeta Agostini-ren *Anuario Estadístico*.

kudeaketa hobetzea etengabeko baldintza izatea.

3. Eredu burokratikotik kudeaketa publiko berrira, eredu gerentzialistatik pasatuz.

Aurreko apartatuan zenbait faktore azaldu ditugu kudeaketa publikoaren eredu aldaketa eragin dutenak. Oraingo honetan, berriz, labur agertuko dut denboran izan duen bilakaera.

Tradizioz Herri Administrazioa ulertu da zuzenbide arauak aplikatzea eginkizun bakarra duten organo eta pertsonen multzo gisa. Horrek berarekin ekarri du gehiegizko zorrotasuna ekinbideetan, eta bereziki kezkagarria da Herri Administrazioa eginkizun prestazionaletan murgiltzen denean. Administrazioaren jarduketa modu horri eredu burokratikoa edo garantista deritzo. Kontrol hierarkikoan, funtzioen gero eta espezializazio handiagoan eta jardueraren arau eta erregulazioen sistema zorrotz batean oinarritzen da aipatu eredu. Begibistakoa denez, eredu hori ez da kapaza errealitate berriari aurre egiteko oinarritzakoak diren elementu jakin batzuk sartzeko, hala nola: kostuaren kontzientziaren beharra; emaitzak neurtzeko garrantzia; jarduera publikoa herritarrari zerbitzuak emateko bide moduan ulertzea; administrazioa malgutzearrealitate aldakorren aurrean.


Hutsune horiek betetzearren, Herri Administrazioaren dimentsio gerentziala sartu da, gakoa ez baita zuzenbide araua betetzen dela ziurtatzea besterik gabe, baizik eta lan metodoen efizientzia bermatzea. Helburu hori jarritz, Administrazioak ikasi behar du sektore

pribatuan dauden kudeaketa esperientzietatik, bai eta bere egituren teknifikazio eta razionalizazio prozesua bideratu ere. Kudeaketa publikoaren ikuspegi berri horrek emaitzengatik dagoen kezkan eragina du, jarduera publikoaren kontrolean oinarrituta dagoen ikuspuntu tradizionalak ez bezala. Beraz, baldin eta eredu garantistan kezka nagusia prozeduren kontrola bazen, eredu gerentzialista emaitzen kontrolean oinarritzen da. Halere, ikuspegi horrek beste zorrotasun batzuk sortu ditu, Herri Administrazioari buruz ikuspegi exekutatzailerak sortu baitu, kudeaketa publikoaren dimentsio demokratikoa alde batera utziaz. Hortaz, Kudeaketa Publiko Berriak Herri Administrazioaren *berezitasun publikoa* sartzan du, *potere* eta politikarekin duen harremana onartzen baitu.

Dagoeneko, garrantzitsuena ez da ondasun eta zerbitzuak ahalik eta merkeen eta efizienteen ekoiztea bakarrik, baizik eta funtsezkoa da hori guztia jarraibide politiko batzuetara egokitzen direla bermatzeko modua. Ikuspegi horretatik³ politika publikoen azterketak hurbilpen berria proposatzen du, *potere* publikoen jarduketan, jarduketa horren emaitzetan eta horiek sortzeko prozesuetan oinarritzen dena, eta emaitzetan eta gizartearen gaineko eragiketan garatu eta eraldatzen dena. Ondorengo taulan isladatu dira aipatu autorearen arabera Herri Administrazioaren jarduketan bereiz daitezkeen etapak:

³ “El análisis de las políticas públicas”. Quim Brugué. Lecturas de políticas públicas, VIII. kapitulu. INAP, 1992

Etapak Herri Administrazioaren jarduketan



4. Aurrekontua, kudeaketarako tresna gisa

Ohi denez, aurrekontua kontrolerako tresna gisa erabiltzen da, nahiz eta garrantzi handiko bestelako erabilera ere izan. Aurrekontua politika makroekonomikoaren tresna ere bada, eta kudeaketa tresna bihurtu behar da. Azken ikuspegi honi helduko diot apartatu honetan. Horretarako, lehendabizi

aurrekontu metodo ezagunen ezaugarri nagusiak azalduko ditut, eta jarraian Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren erabilpenak udalen esparruan dauzkan potentzialitateak.

4.1. Aurrekontu metodoak

Aurrekontu administratiboa edo bitartekoen aurrekontua aurrekontu teknika tradizionalena da, eta administrazio garantista bati dagokio, helburu nagusia gastua kontrolatzea baita. Beraz, informazioa ematen du gastatzeko baimena duten organoei buruz (sailkapen organikoa) eta gastu eta sarreraren izaera ekonomikoari buruz (sailkapen ekonomikoa). Gainera ere, aurrekontu sailei buruzko informazioa ere birsailkatzen da jarduera publikoaren bitartez lortu nahi diren helburu orokorren arabera (sailkapen funtzionala).

Beraz, ez da teknika bat aurrekontua irizpide ekonomikoen arabera kudeatzeko eta emaitzak baloratzeko aukera ematen diguna. Horregatik ez da nahikoa sektore publikoari jarritako erronkei aurre egiteko.

Hutsune horiek betetzearren, *programa bidezko aurrekontua* sortu zen. Jarduera publikoak urteanitzeko helburu esplizituen programetan sailkatzen dira. Aukera eman behar du gastu alternatiboko programen artean hautatzeko, eta beraz planifikazio estrategikoaren mailan sartzen den teknika bat da, baina emaitzak ebaluatzeko aukera ere ematen du. Aurrekontu metodo honetan oso garrantzitsua da programak, helburuak eta jarraipenaren adierazleak ongi definitzea.

Aurrekontu teknika honen hutsune nagusia, hain zuzen, asmo handikoa izatea

da, teknika hau gautzatzea oso konplexua baita. Azken bi hamarkadetan gure inguruneko administrazioetan programa bidezko aurrekontuak erabiltzean lortutako esperientziak hutsuneak izan ditu oro har. Nolanahi ere, eskema teoriko ona da jarraibide nagusiak ematen dituen, antolakunde bakoitzaren beharren eta kulturaren arabera egoki deritzen elementuak sartzeko.

Aurrekontu araudian (Udal Entitateen Aurrekontuen 4/1991 Foru Araua, eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamenduari buruzko 96/1992 Foru Araua) jasotako *programa funtzionalen bidezko aurrekontua*, nire ustez, tarteko planteamendua da administrazioen edo bitartekoen aurrekontuaren sistemaren eta aurreko bi parrafoetan aipatutako programen arabera aurrekontuaren artean. Aurrekontu sistema horrek kudeaketa tresnak ere sartzen ditu, helburuak eta kudeaketaren adierazleak ezarri behar diren heinean, jarduera publikotik eratorritako emaitzak aztertzeo aukera ematearren. Halere, horrek ez du esan nahi aurrekontu sistema hau maila estrategikoago batean sartu denik epe luzeko plangintza bilatzeagatik eta programa alternatiboen artean hautatzeagatik. Nolanahi ere, funtsezko aurrerapena da aurrekontu klasikoaren aurrean, eta pixakanaka Gipuzkoako udalen aurrekontu prozeduran sartu behar da.

4.2. Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua

Udalek Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua erabil dezakete aurrekontu alorreko xedapen orokorrak udal bakoitzaren antolamendu eta egoerara moldatzeko. Aldi berean aurrekontuaren kudeaketa malgu, zorrotz eta modernoa

ahalbideratu dezakeen tresna da. Dena den, ez da erabiltzen behar adinako intentsitateaz.

Malgutasun handiago hori lortzeko, aurrekontua gauzatzean bereziki garrantzitsuak diren alderdi batzuk arautu daitezke:

- Kredituen lotura juridikoaren mailak.
- Udal organo desberdinen gastuak baimendu eta erabiltzeko eskumenak.
- Irizpideak jartzea fase batzuk egintza administratibo bakarrean metatzeko.
- Justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak arautzea.
- Kredituak aurrerapenez txertatzeko prozedura arautzea.
- Alkatearen eskumena kreditu gehigarriak onartzeko, salbuespenez.

Erabateko adostasuna dago kudeaketa publikoan malgutasun handiagoa printzipio orokor gisa defendatzeko, baina zenbaitetan malgutasun hori zorrotzasun eta kontrolaren aurkakotzat hartzen da. Benetan, ez dira nahitaez elkarren aurka egon behar duten printzipioak. Areago, aurrekontuaren kontrola Administrazioaren barruan beharrezkoa ez ezik, bertan berdintasun, meritu eta gaitasun baldintzetan sartu izana bermatzearen, kudeaketa efizienteagoa erraztu dezakeen elementua ere bada, kudeaketa gardenagoa eta arbitrarietateei lotu gabea errazten baitu⁴. Dirulaguntzak emateko prozedura arautzea efizientziaren kontra al doa? Ez ote da gertatzen batzuetan malgutasuna, efizientzia... bezalako printzipioen izenean zenbait

⁴ Gaur egun kalitate sistemak oso zabalduta daude sektore pribatuan. Funtsean produkzio prozesu guztiak dokumentatzen dira, produktuek aurrez jarritako kalitate estandar batzuk betetzen dutela bermatzearen (ISO 9000 ziurtapenak).

kontrol ezeroso saihestu nahi izatea? Ikuspegi makroekonomikotik, gastu eta sarreraren exekuzioa kontrolatzea garrantzi handikoa da, denon jakina baita aurreko urteetan Herri Administrazioen multzoan gastua gauzatzean izandako desbiderapenak desproporzionatuak izan direla, eta horrek berarekin ekarri duela gehiegizko aurrekontu defizitak sortzea. Horregatik guztiagatik, **kudeaketa publikoan zorroztasun eta disiplina elementuak** izan behar dira, baina ez helburu gisa. Horretarako, udal enteek Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren barruan aspektu hauek arautu ditzakete, bestela beste:

- Kreditu zabalkorrak beren gehieneko zenbatekoekin lotzea.
- Obra ziurtapenak eta likidazioak onartzeko irizpideak.
- Dirulaguntzak eman eta ordaintzeko irizpideak.
- Dieta, garraio eta lekualdaketen sariak arautzea.
- Sarrera eta gastuen aurrekontua gauzatzeko arauak.
- Eskubide kobragaitz edo kobraezinak kalkulatzeko erabili beharreko irizpideak.
- Bermeak ematearen eta zorpetzearen gehieneko maila.
- Gastu errepikarientzat eta kopuru bereziko gastuentzat arautzea gastua aldi jakin baterako baimentzen duten aurrez zorpetutako sistemak, sistema arin baten bitartez gastua aldeztuz aurretik kontuhartzea ahalbideratuz.

Azkenik, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauan sar daitezke aurrekontua kudeaketarako tresna gisa erabiltzean eragina duten kudeaketarako proposamenak babesten dituzten elementuak, aurrekontua kudeaketarako tresna gisa erabiltzeko aukera ematen dutenak: horixe da **kudeaketa modernoa**. Helburu horrekin,

aspektu hauek arautu daitezke, adibide gisa:

- Aurrekontu egitura, sailkapen ekonomikoa, organikoa eta funtzionala asignatzeko erabakitzen diren irizpideen arabera.
- Programa funtzionalak zerrendatzea, eta horiek gauzatzeko pertsona erantzuleak identifikatzea.

Ondorio gisa, gure ustez, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauak aukera ematen du udal bakoitzak aurrekontu araudia bere beharretara egokitzeko, garrantzi handiko aspektuetan. Nolanahi ere, derrigorrezko araudia errepikatzea saihestu behar da, eta bereziki arautu nahi diren aspektuak sartzera mugatu behar da.

5. Antolamendua eta kalitatea herri zerbitzuak ematean

Aurrekontua erabiltzeak kudeaketa efizienteago batentzat duen garrantzia aztertu ondoren, atal honetan azalduko ditut, nahitaez laburtuta, herri zerbitzuak emateko antolamenduzko aspektuei dagokienean nire ustez interesgarriak diren ideia batzuk. Gainera, erraz samarrak diren bi teknika aipatuko ditut, zerbitzuak ematerakoan hobekuntza egiteko aukera handiak eman ditzaketenak.

5.1. Antolamenduaren alderdi orokorrak

Kudeaketa publikoan baldintza berberetan hartu behar dira aintzakotzat bi elementuak: bata, kudeaketarena, helburu publikoan lortzeko egokia den antolamendu markoa zehazteko balio duena; eta bestea, osagai publikoarena,

sektore publikoak pribatuarekiko duen berezitasuna azpimarratzen duena, helburu kolektiboak murrizpen juridiko-politikoaren markoan lortu behar baitira.

Herri Ogasunaren teoriak, merkatuaren akatsen eta sektore publikoaren akatsen azterketa eginez, jarraibide nagusiak ematen dizkigu eskuhartze publikoa noiz gertatu behar den zehazteko. Eztabaida handiagoa dago eskuhartze hori nola gauzatu behar den aztertzean, zehazkiago produkzioa eta horniduraren artean nola bereizi behar diren zerbitzu konkretu baten ezaugarriei begira. Lortu behar da eskuhartze publikoko bitartekoak Administrazioak jarritako helburuetara eta eman beharreko zerbitzuaren karakterizazio “publiko” handiago edo txikiagora modu efizientean egokitzea. Gainera, arazoei buruzko pertzepzioa aldatzen da denboran zehar, eskuhartze publikoaren mota desberdinen artean aukeratzean osagai ideologikoa ere badagoen neurrian.

Ez dago irtenbide argirik antolamenduaren aspektuei dagokienean, hau da, esparru pribatuan erabilitako teknikak ezin dira zuzenean sektore publikoan erabili. Beste edozein gauza baino gehiago, zuhurtasuna eta senaren erabilera ona beharrezkoak dira, kudeaketako teknika berriak edo antolamendu formula berriak sartzeari.

Nolanahi ere, denak ados daude helburu bidezko kudeaketa sistemak erabiltzeko beharra dagoela, emaitzak baloratzeko nahiz erabiltzaileari zuzendutako zerbitzuaren kultura sartzeko. Horrek eskatzen du funtzio politikoak eta kudeaketa funtzioak elkarrengandik bereiztea, erabakiak hartzean herritarren partaidetza indartzea eta kudeatzaileei erantzukizun handiagoa ematea

aurrekontuak kudeatzean eta emaitzak lortzean.

5.2. Kalitate agiriak herri zerbitzuetan

Kalitate Agiriak edo Herritarren Agiriak, nire ustez, aplikatzen erraztenak izaten dira kudeaketa publikoan kalitatea sartzeko erabiltzen diren teknika guztien artean. Horrek, dena den, ez du esan nahi haiek erabiltzea erraza denik, baizik eta teknika bere horretan batere zaila ez dela. Halaber, aukera gehien eskeintzen dute udaletan.

Kalitate Agiriak zerbitzu edo departamentu jakin baten eta erabiltzaileen artean ezartzen den zerbitzu kontratu baten adierazpen konkretua dira. Bertan, funtsean departamentuak ematen dituen jarduera eta zerbitzuei buruzko informazioa sartu ohi da, bai eta bermatu nahi diren zerbitzu konpromisuak eta partaidetza sistemak ere (iradokizunak, erreklamazioak...).

Zerbitzuaren konpromisuak zehazteko, ezinbestekoa da konpromisua dela medio zerbitzuak erabiltzaileei emango dien eta hobetuko dituen kalitatearen estandarrak eta adierazleak definitzea.

Udal batean bide hori erabiliz gero eta kalitate agiri bat baino gehiago erabiliko dela uste izanez gero, eredu bakar bati jarraituz egin beharko ditu zerbitzu bakoitzeko talde batek, herritarren asmo eta beharrak kontuan hartuz.

Formula horren arriskua asmo onen aitortzen formal hutsean geratzea da, inolako ondorio praktikorik gabe. Horregatik, oso garrantzitsua da kalitatearen estandarrak definitzea eta erreklamazio eta alegazio mekanismoak

jartzea, udala estandar horietara iristen ez denean. Nolanahi ere, beste lurralde batzuetan dagoeneko martxan jarri dira horrelako iniziatibak, bide erdian geratu arren (kalitate agiriak baino, zerbitzu gidak dira) urrats handiak direnak kalitate agirien ondorio guztietara zabaltzeko.

Formula honen indarra merkatuaren erreferentzia herri zerbitzuak ematean oso ahula izatearen edo batere ez egotearen ondorioa da. Beraz, hirugarren batzuen aurrean konpromisu batzuk jartzen dituen teknika denez, horiek betetzera bultzatu eta eragiten du. Hau da, nork bere erantzukizuna hartuz, sektore publikoan ez dagoen kanpoko kontrola sartzen da zeharka.

5.3 Benchmarking-a.

Benchmarking-a kalitatea bilatzeko teknika da, eta beste antolakunde baten kudeaketako praktikarik onenak identifikatzea du helburu, bai konpetentziakoengan bai antzeko jarduera funtzionalak dituztenengan, antolakunde haren mailara iristeko zerbitzu maila modu planifikatuan hobetuz eta prozesuaren barruan lortutako emaitzak ebaluatuz. Bestela esanda, onena kopiatu beharko litzateke.

Teknika hau sektore publikoan erabiltzea, aurreko kasuan bezalaxe, pizgarria izan daiteke kudeaketa hobetzeko, gehienetan kanpoko erreferenterik ez baitago. Modu antolatuan eta egituratuan aplikatzea konplexua izan daiteke, baina emaitzak eta antolamendu metodoak elkarrekin konparatzen dituzten esperientziak sar daitezke, onenarengandik ikasteko eta jarduketa estrategia konpartituak bultzatzeko, esparru publikoan oso beharrezkoak baitira. Beraz, ez da modurik inefizientean egiten duena seinalatzeko sistema, baizik

eta efizienteenari pizgarriak emateko sistema, berari eta gainerakoei errekonozimendua ematen baitzaie lortzen erraza den erreferentzia eskeintzen zaien neurrian.

6. Ondorioak

- Kudeaketa publikoaren literaturatik egiten diren hausnarketetan, sektore publikoak ekonomian bete dezakeen eginkizuna bestela pentsatzea beharrezkoa da, adostasun orokorra duten formula itxirik ez baitago. Orientazio egokia gorpuzteko zailtasun horrek isaladatzen du gobernatzeko zailtasuna gobernarien gaitasuna baino askoz ere areago joan dela. Beharrezkoa da umiltasunez aitortzea garai hauetan zailtasuna dagoela alternatiba egokiagoak planteatzeko. Bestalde, zalantzarik ez dago errealitate horrek buru eskema irekia eta zabala behar du. Halaber, alde batera utzi behar dugu zabalduta dagoen ideia, hau da, orokortasunez ahalik eta zerbitzu gehien pribatizatzekeo ideia, gobernu enpresa baino askoz ere gehiago baita: sektore publikoan sinestu eta ezagutzen duten gobernariak behar-beharrezkoak dira.

- Marko orokor eta ireki horretan, adostasun zabala dago gaur egungo paradigma sozialaren aldaketei erantzuteko oinarritzko ideia batzuei buruz:

- Kostuari buruzko kontzientziaren beharra.
- Kudeaketa hobetzeko tresnak eta teknikak erabiltzea.
- Malgutasuna aldaketen aurrean.
- Helburu bitartez kudeatzeko beharra, emaitzak eta politika publikoen eraginak neurtzeko.

- Erabiltzaileari zuzendutako zerbitzuaren kultura.
- Aurrekontua kudeatzeko gaitasuna duten erantzukizun zentroak definitzea.

- Lehen aipatutako oinarritzko printzipio batzuekin bat etorriz, aurrekontu politikak kudeaketa tresna izan behar du, kontrolerako eta politika makroekonomikorako baliagarria izateaz gain. Gauzak horrela, helburu bitartez egin behar da aurrekontua, garatu nahi diren jarduketak definituz eta emaitzak eta Administrazioak emandako zerbitzuen amaierako kontsumitzaileen gaineko azken eragina ezagutzeko aukera ematen duten adierazleak finkatuz.

- Badira sektore pribatuan eta publikoan saiatutako teknika desberdinak zerbitzuak ematean kalitate sistemak sartzeko helburua dutenak. *Herritarrentzako Zerbitzuen Agiriak eta Benchmarking*-a horietako bi dira eta, nire ustez, teknika horiek kudeaketa publikoan sartzea oso interesgarria da. Biek pizgarriak eta eragingarriak sartzen dituzte zerbitzuak ematean hobekuntzak egin ahal izateko, eta kanpoko kontrolaren hutsunea betetzen dute. Horietako lehen teknikan, erabiltzaileen aurrean konpromisuak hartzeak berarekin dakar lehendik aurreikusitako emaitzak lortzeko interes gehigarria. Bigarrenean, aldiz, antzeko ente publikoen kudeaketa erreferentziatzat hartzean, kanpoko erreferentzia sortzen da emaitzak konparatzeko eta praktikarik efizienteenak bereganatzeko.

Bibliografia erabilia

- Emilio Albi, José Manuel González Páramo eta Guillem López Casasnovas. *Gestión pública. Fundamentos, técnicas y casos*. Ariel Economía, 1997.

- Jordi López eta Albert Gadea. *Servir al ciudadano*. Ediciones Gestión 2000, 1995.

- *Ekonomiaz*, Ekonomiaren euskal aldizkaria, 24 zenbaki monografikoa. “La nueva gestión pública: factor de competitividad”, 1993.

- Joan Prats. “Reformas económicas y reducción del rol del Estado?”, *Planeta-Agostiniren Anuario Estadístico Universaleko* artikulua, 1996.

- S. Parrado “Una visión crítica de la implantación del “benchmarking” en el sector público”, *Herri Administrazioaren Euskal Aldizkaria*, 45 zenbakia, 1996.

- Quim Brugué. *Lecturas de políticas públicas*, VIII. kapitulua (“El análisis de las políticas públicas”), INAP, 1992.

PLANIFICACIÓN, EVALUACIÓN Y CONTROL DE LA GESTIÓN MUNICIPAL

José Ignacio Elzaurdi y Juan Amezttoy. Elzaurdi-Amezttoy Asesores en Gestión - Kudeaketan Aholkulariak.

Artikulu honek udal administrazioetan kudeaketa tresnak planifikatzeari buruzko hainbat lerro teoriko azaltzen ditu laburki. Horrekin batera, eta ikuspegi enpiriko batetik begiratuta, artikuluak aztergai dakarzkigu halaber urtez urteko “Udal Kudeaketa Planen” inguruan duela urte batzuk martxan jarri eta gaurregun Gipuzkoako zenbait udalerritan egiten ari diren esperientzia desberdinak. Aipagarria da, zentzu horretan, Euskal Udaleen Elkarteak (EUDELEk) hiru lurralde historikoetako sei udalerritan -2.000 biztanletik beherakoetan hain zuzen- Kudeaketa Tresna bat sortzeko burutu duen esperientzia pilotoa.

I.- INTRODUCCIÓN:

Resulta evidente la necesidad de introducir nuevas herramientas de gestión que sirvan para modernizar la Administración Local y permitan una mejora de la eficacia y eficiencia de la organización. En numerosas ocasiones vemos intentos de trasladar modelos de gestión de la empresa privada, sin tener en cuenta un elemento fundamental a nuestro entender como es que la Administración Local no busca como fin último un resultado económico sino que tiene un fin eminentemente social en la mayoría de los servicios que presta.

Las experiencias enunciadas que con la idea de generar una cultura de gestión se han desarrollado en este sentido, se podrían catalogar como “herramientas” ya que se entiende que es un instrumento que sirve para introducir mejoras en la Administración Local, mejoras que pueden ir dirigidas a buscar una mejora continua o bien en la búsqueda de la calidad. Dada la situación actual de

nuestras Administraciones Públicas estas experiencias han servido para **implantar progresivamente un proceso de Mejora Continua de la Gestión Municipal**, y lo que a nuestro entender es lo más importante, han servido para **lograr la asimilación por parte de los trabajadores de esta forma de trabajo**. Se constituye pues, como un medio para implantar la MEJORA CONTINUA y no como un fin en sí mismo.

El desarrollo de este tipo de herramientas se fundamenta en dos pilares básicos como son **la planificación de la gestión** por un lado y **el control de la gestión** por el otro, **siendo consecuencia de ambos su evaluación**.

II.- PLANIFICACIÓN DE LA GESTIÓN:

Fundamentalmente existen dos niveles de planificación en función de los plazos que se marquen a la hora de planificar:

Planificación estratégica--- Planificación a largo Plazo.
Planificación operativa----- Planificación a corto Plazo.

Como algunos autores mencionan, dirigir consiste en llevar a cabo la función estratégica y gestionar está asociado a la función operativa. Estos dos niveles se complementan en el tiempo siendo una de las funciones consecuencia de la otra.

Se puede definir la planificación estratégica como *“el conjunto de decisiones y acciones resultantes en la formulación e implantación de las estrategias diseñadas para alcanzar los objetivos de una organización”*. En la Administración Local esta planificación viene determinada generalmente por las directrices que se marcan por el Equipo de Gobierno a través de los Programas de Gobierno de cada legislatura. Este periodo de planificación política a cuatro años abarca un periodo bastante restringido para una idónea planificación estratégica. No obstante, hoy en día cada vez son más los Entes Locales que diseñan sus propios Planes Estratégicos que marquen las líneas de futuro a seguir a más largo plazo, y en los que el campo de actores participantes no se restringe sólo al equipo de Gobierno, estando implicados todos los agentes que constituyen la vida Municipal. La planificación estratégica ha de establecer unos objetivos claros, factibles, y sin contradicciones, basados en las potencialidades del Municipio y en función de los recursos disponibles.

Por otro lado, el objeto de este artículo se centra principalmente en la planificación a corto-medio plazo, también llamada planificación operativa o de gestión, la cual tomando como base las líneas maestras definidas en la planificación estratégica, consiste básicamente en la determinación de objetivos, responsables, recursos, plazos y las correspondientes actuaciones para llevar dichos objetivos a buen fin. El concepto de gestión podemos definirlo como *“la formulación y selección de objetivos, actividades y tareas con el fin de elaborar planes operativos que nos permitan su posterior ejecución, liquidación y evaluación.”*.

En la Administración Local, el instrumento de planificación de la gestión municipal a corto plazo es el presupuesto municipal, en el cual se recoge la asignación prevista de los recursos para el ejercicio que se pretende abarcar. En este sentido observamos que el presupuesto municipal entendido como asignación presupuestaria de recursos no colma las necesidades de planificación de una Administración Pública moderna. Se pretende por todo ello, que sirva para una planificación más amplia de las actuaciones municipales, de tal manera que incluya programas y objetivos para lograr en definitiva una Mejora Continua.

Es más, este planteamiento está incluso previsto en la propia Norma que regula la planificación presupuestaria. Ya en el preámbulo de la Norma se recoge el concepto de programa funcional como *“bloque de la clasificación presupuestaria para el que se definen los objetivos a conseguir en el ejercicio y las acciones concretas que van instrumentar dicha actividad.”* Con ello entendemos que la norma pretende que la planificación presupuestaria sea algo más, introduciendo criterios de planificación por objetivos a la hora de elaborar los Programas funcionales presupuestarios.⁵ Por tanto la planificación de la gestión Municipal en base a objetivos iría a completar la planificación presupuestaria, ya que la determinación de objetivos es requisito fundamental para introducir criterios de racionalidad de los recursos.

La Planificación y Programación de la gestión en base a objetivos permite:

- Desarrollar una gestión descentralizada sin perder el control de la gestión desde el

núcleo directivo. Crear un proceso participativo de toma de decisiones integrando en el mismo a toda la organización.

- Desarrollar un estilo de dirección creativo.
- La determinación de responsables de las diferentes áreas de gestión.
- Dotar a la Institución de un lenguaje común basado en la planificación. Homogeneizar una forma de trabajo.
- Orientar y racionalizar el trabajo de los diferentes grupos.
- Autoevaluar el resultado de los propios objetivos con la finalidad de introducir en su caso criterios de mejora para planificaciones posteriores.
- En definitiva, generar en la organización la cultura de la planificación, que permita el planteamiento a priori de cualquier mejora.

La metodología a la hora de establecer esta forma de trabajo viene definida con la relación de objetivos, recursos, plazos y resultados. Planteados los objetivos, será necesario delimitar las actuaciones para llevar a cabo esos objetivos, definir los responsables, asignar los recursos correspondientes así como el plazo de su ejecución.

Por otra parte, como se describe anteriormente, se pretende que dichos planteamientos se lleven a cabo de forma homogénea y descentralizada desde los diferentes agentes o áreas del Ayuntamiento a través de sus responsables, implicando tanto

⁵ Art 12.2 N.F. 4/91, de 26 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales y Art. 17 D.F. 96 / 1992, de 1 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales. *“Cada Programa Funcional recogerá la información relativa a los objetivos perseguidos, las actividades para su consecución, los medios humanos y financieros necesarios, así como le responsable para su ejecución....”*

Art. 12.3 N.F. 4/91: *“Los objetivos perseguidos por cada programa funcional se concretarán, si es posible, en términos susceptibles de seguimiento.”*

Art. 12.4 N.F. 4/91: *“Cada programa funcional incluirá, en su caso, información de los ingresos que se prevea deriven de su realización y que estén recogidos en el estado de ingresos del respectivo presupuesto.”*

responsabilidades técnicas como políticas. El criterio que definiría la estructura de dónde o cómo se han de marcar los objetivos viene determinado en base a la clasificación funcional presupuestaria del gasto, conformada por lo diferentes programas funcionales, tal como se recoge en el precepto legal analizado anteriormente. Esto implica la exigencia de una idónea estructuración y contabilización de las partidas en los programas que exige esta clasificación.

Es necesario tener en cuenta que el planteamiento de los objetivos de los diferentes Departamentos ha de ser de forma consensuada técnico-político. Ello conlleva la implicación en la gestión de la parte política y la implicación en la toma de decisiones del personal técnico.

En cuanto a los límites que plantea esta forma de trabajo estos son:

- El convencimiento de las personas implicadas que lideran los diferentes departamentos.
- El establecimiento de unos objetivos que se adecuen a las posibilidades económicas y se encuentren en consonancia con los recursos de la Institución.
- La existencia efectiva de liderazgo, sobre todo en los responsables máximos de la organización, con el fin de asumir el compromiso adquirido.

Por último, señalar también que es preciso planificar la actividad municipal con la suficiente flexibilidad para poder adecuar los imprevistos que puedan surgir. Ello permitirá detectar las posibles desviaciones creadas.

III.- CONTROL Y EVALUACION DE LA GESTION:

El planteamiento de objetivos exige a su vez un sistema de indicadores que permitan ligar el control a la evaluación de objetivos y por otra parte evaluar los resultados de la gestión. Los indicadores se presentan así como el elemento de apoyo a la planificación y en suma a la mejora de la gestión. Conformen el sistema de información para la gestión, permitiendo el autocontrol y la evaluación de las políticas y objetivos.

En nuestras Administraciones Locales se suelen realizar, por medio de auditorías, estudios organizativos, de cargas de trabajo, estadísticos,..., controles puntuales y de detalle para algunos de los sectores de la organización del Ayuntamiento, sin embargo, entendemos que la gestión gerencial que una planificación de la gestión Municipal conlleva, ha de dotarse de un sistema de control que implique y abarque a toda la organización, y que puede marcar una tendencia o evolución de la misma en su conjunto.

Los indicadores, en la medida en que se planteen, pueden recibir varios enfoques pudiendo ser estos,: indicadores cuantitativos o estadísticos, indicadores de gestión o de mejora, indicadores de cumplimiento de una determinada actuación,..., pero en definitiva todos nos van a ofrecer una información cuya interpretación va a servir de apoyo a la evaluación de la política seguida, a la toma de decisiones y a la planificación del ejercicio próximo.

Por otra parte y desde otro punto de vista, entendemos que se podría hacer otra clasificación de indicadores a tener en cuenta, distinguiendo aquellos indicadores cuya ejecución o cumplimiento **no marca una tendencia**, de aquellos que se repiten durante varios ejercicios y nos van a marcar una **evolución o tendencia**. Ambos tipos de indicadores estarán estrechamente ligados al logro de los objetivos que nos hallamos planteado:

Por ejemplo: La catalogación de los libros del servicio de biblioteca sería un indicador que muere tras comprobar si se ha catalogado o no el nº "x" de libros. Sin embargo, el Ahorro neto es un indicador que nos va marcando año a año una tendencia. En ambos casos nos podemos plantear el objetivo de catalogar X número de libros o de conseguir un ahorro neto X de pesetas.

A su vez, el establecimiento de unos indicadores que sean homogéneos para varios Entes Locales permite la posible comparación entre estos entes, siempre teniendo en cuenta la coyuntura e idiosincrasia del ente comparado. Este aspecto se plantea generalmente para aquellos indicadores que marcan una evolución, y en este sentido nos parece muy interesante la labor divulgativa que para llevar a cabo este tipo de comparaciones realizan los centros poseedores de la información.

